

Karbono monoxidoa, etxe barruko hiltzailea

NEGUA ETORRI AHALA gero eta maizago pizten ditugu etxeke berogailuak. Abendutik maiatzera bitartean su eta ke arituko dira gure galdarak gasa erretzen, eta denbora tarte horretan behin baino gehiagotan izango dugu karbono monoxidoaren eraginez gertatutako ezbeharren berri.



Karbono monoxidoa, CO, gas gardena da, usain gabea eta airearen dentsitate berekoa gutxi gorabehera. Normalki erregai baten (egurra, ikatza, butanoa, gasolioa, fuela...) erreuntza partzialaren ondorioz sortzen da, eta oso ondorio larriak izan ditzake, hemoglobinan eta proteinetan finkatu eta zelulak kutsatzen ditu eta. Arnasten dugun airean CO kontzentrazioa %0,1 baino handiagoa bada ordubetea hil gaitzake; %1 baino handiagoa bada, 15 minutuan; eta %10 baino handiagoa bada heriotza berehalakoa izan daiteke.

Lerro hauen bidez urteroko aholkuak gogora ekarriko ditugu: hotz sasoi hastean galdarak, tximiniak eta aireztatze hobiak errebisatzea, egunero etxea gutxienez hamar minutuz aireztatzea eta airearen zirkulazioa ez oztopatzea. Eta ez ahaztu, istripua izatekotan, laguntza eskatzeaz batera ingurua aireztatu behar dela. ■



Bridgmanita, Lurreko mineralik ugariena

Lurreko mineralik ugariena ez dago lurrazalean, oso sakonean baizik. Bridgmanita jarri berri diote izena eta magnesio silikato mota bat da. Mantuan dago, 670 eta 2.900 kilometro bitarteko sakoneran, eta haren bolumenaren erdia betetzen du gutxi gorabehera. Oraintsu arte minerala ezin izan da aztertu eta horregatik ez diote izenik eman. Azkenean, meteorito batean aurkitutako lagina aztertu dute.

ttiki.com/133038
(Gaztelaniaz)

Lezetxikiko giza hezurra, Iberiar penintsulako zaharrena Atapuercakoa eta gero

Lezetxikin aurkitutako giza humeroak 160.000 urte inguru ditu, Australiako Unibertsitateak egindako azterketa baten arabera. Momentuz antzinatasuna baino ez dute finkatu; orain, sexua eta beste fosil batzuekin izan dezakeen harreman genetikoa aztertu nahi dute.

ttiki.com/133040
(Euskaraz)

Saturnoko eraztunen jatorriaz beste bi hipotesi

NASA



IKERLARIAK aspalditik ari dira Saturnoko eraztun ederren jatorria ikertzen. Hipotesi bat baino gehiago eman da, baina ez-ezagutza gailendu da orain arte. Berriki, Nizako behategi bateko ikerlariek bi hipotesi plazaratu dituzte. Baten arabera, Neptunotik haratago zegoen objektu handi batek Satur-

noko izotz geruza jo eta milioika puskatan txikitzean sortu ziren eraztunak. Beste hipotesiak dio Saturnotik hurbil samar zegoen izotzezko satellite batek planeta jo ondoren barreiatutako milioika puskez osatuta daudela eraztunak. ■



Ozonoaren arriskua

Atmosferako goi aldeko ozonoak eguzkiko izpi ultramoreetatik babesten gaituen bezala, behean dagoena, arnastu dezakeguna, kaltegarria da. AEBetan egindako ikerketa baten arabera, beroketa globalak eragin lezake gas horren kontzentrazioa handiegia izatea hamarkada batzuk barru.

ttiki.com/133042
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16